



ORIOKOU DALA

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2010eko maiatzaren 25a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:05 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:55

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Iñaki Garcia Aranbarri, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDA

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2010eko martxoaren 24an egindako ezohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Txanka-Hondartza errepidea zabaldu eta hobetzeko proiektuaren aldaketa, eragindako ondasun eta eskubideen zerrendarekin batera, eta alkateari ahalmena ematea jabeekin akordioak sinatzeko; proiektua Inforlur SL entitate merkantileko Jurgi Gallastegi Villa eta Mikel Amiano Munitxa ingeniariak idatzi dute.



- 3.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. arearen —Dike— kontzertazio hitzarmena; hitzarmena Jose, Casilda eta Carmen Garate Tolosak eta Pedro Aiestaran Etxabek aurkeztu dute, Dike Berri, SL entitate merkantilaren izenean.
- 4.- Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoa; hitzarmena Lurra, Promoción y Gestión SL entitate merkantilak aurkeztu du Udalaren aurrean.
- 5.- Adjudikatzea, egoki bada, “Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak egiteko proiektua” exekutatzen obren kontratazioa, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presako tramitazioz eta lehiaketa bidez.
- 6.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko udal planeamenduko arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorritako PR/1 partzelaren partaidetza indibisioa (%21,1130) besterentzea, lehiaketa publiko bidez.
- 7.- Onartzea udal lurrak (3.232,80,m2 m2) doan lagatzea, jabari publiko itsas-lehortarrean sartzeko, honako helburuarekin: Ingurumen, Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioak eman diezaion Orioko Udalari jabari publiko itsas-lehortarreko ondasunak okupatzeko baimena Orioko arrauneko eta piraguismoko teknifikazio-zentroa handitu eta zaharberritzeko proiekturako.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Ardora Antilla SL entitate merkantilaren eta Orioko Udalaren artean Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboa desegitea.
- 9.- Onartzea, egoki bada, Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desegitea eta, beraz, ustiapen-eskubideak lagatzeko udal baimena deuseztatzea.
- 10.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 3/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago.
- 11.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 4/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago.
- 12.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 5/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean eginga dago.



- 13.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 6/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 14.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 7/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu transferentziaren modalitatean egina dago.
- 15.- Proposatzea, egoki bada, 2011ko Orioko jaieguna.
- 16.- Onartzea, egoki bada, talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek egindako proposamena, alkatearen eta zinegotzi liberatuen ordainsariak izozteari buruzkoa.
- 17.- Onartzea, egoki bada, Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garcia Aranbarrrik aurkeztutako mozioa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko errepideetan ezarri nahi diren bidesari berriak direla-eta, eta EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa.
- 18.- Onartzea, egoki bada, Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garcia Aranbarrrik aurkeztutako mozioa, frankismoaren biktimen desagerketak direla-eta, eta EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa.
- 19.- Onartzea, egoki bada, Orioko Erraustegiaren Kontrako taldeak aurkeztutako eta talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi, Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko Iñaki Iturain eta Iñaki Garcia eta EAKo Bixente Lasa zinegotziek babestutako mozioa, Usurbilgo itunarekin bat egitea eskatzen duena, eta EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa.
- 20.- Onartzea, egoki bada, talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, eskubide zibil eta politikoen defentsan eta apartheid-aren kontra.
- 21.- Eskariak eta galderak.

ESAN-EGINAK

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2010EKO MARTXOAREN 24AN EGINDAKO EZOHICO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2010eko martxoaren 24an egindako ezohiko bilkurako akta.

Talde mistoko Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta proposatzen die bertaratutako udalbatzarkideei beste bi gai sartzea aztergai zerrendatik kanpo:

Aurreneko gaia ORIOKO HERRI IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEAK, 2006ko irailean sinatutako elkarlan hitzarmenaren anparoan aurkeztutako 2009rako diru-laguntza eskaerari buruzkoa da. Alkateak erantzuten dio esanez diru-laguntza eskaera hori udal idazkariak egin behar duen txosten juridiko-ekonomiko baten zain dagoela eta, behin txosten hori egina dagoenean, gaia Udaleko Hezkuntza batzordean diktaminatuko dela, gero dagozkion erabakiak hartzeko. Hori dela-eta, Goiburu zinegotziaren eskaera atzera botatzekoa da.

Bigarren gaia mozio bat onartzeari buruzkoa da. Talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztu duten mozioak izenburu hau du: “Eskubide guztien jabe, euskal presoak Euskal Herrira!”

Segidan, bozketa egiten da gai hori urgentziazkoa izendatu eta udalbatzarraren aztergai zerrendatik kanpo aztertu ala ez erabakitzeko. Aldeko botoa ematen dute Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA) zinegotziek, guztira **SEI ALDEKO BOTO** eta, beraz, udalbatzarkideen gehiengo absolutua; abstentzio botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ) eta Del Hoyo (EAJ) zinegotziek, guztira **LAU ABSTENTZIO**; eta kontrako botoa ematen du Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak, guztira **KONTRAKO BOTO BAT**.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO TXANKA-HONDARTZA ERREPIDEA ZABALDU ETA HOBETZEKO PROIEKTUAREN ALDAKETA, ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDAREKIN BATERA, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA JABEEKIN AKORDIOAK SINATZEKO; PROIEKTUA INFORLUR SL ENTITATE MERKANTILEKO JURGI GALLASTEGI VILLA ETA MIKEL AMIANO MUNITXA INGENIARIEK IDATZI DUTE.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak, Herri Antolaketa, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaile bateratuak 2010eko maiatzaren 18an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:



1.- **ONARTZEA** Orioko Txanka-Hondartza errepidea zabaldu eta hobetzeko proiektuaren aldaketa, eragindako ondasun eta eskubideen zerrendarekin batera; proiektua kontratu bidez gauzatu da eta 1.562.007,09 euroko aurrekontua du (BEZ barne); proiektuaren exekuzioa Bidegi SA Foru Sozietatearen kontu eta kargura izango da.

2.- **AHALMEN ZABALA** ematea Orioko alkateari, eragindako ondasun eta eskubideen jabeekin akordioak sinatzeko; ondasun eta eskubide horiek erosteko kostua, gutxi gorabehera, 68.023 eurokoa da.

3.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 14. AREAREN —DIKE— KONTZERTAZIO HITZARMENA; HITZARMENA JOSE, CASILDA ETA CARMEN GARATE TOLOSAK ETA PEDRO AIESTARAN ETXABEK AURKEZTU DUTE, DIKE BERRI, SL ENTITATE MERKANTILAREN IZENEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Udalbatzarrak, 2010eko urtarrilaren 26ko ohiko bilkuran, lehen onarpena eman zion Orioko Arau Subsidiarioetako 14. arearen —Dike— kontzertazio hitzarmenari (2010eko martxoaren 8ko GAO, 44. zenbakia); onarpen-erabakiak honela dio, hitzez hitz:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. arearen —Dike— Kontzertazio Hitzarmenari.

2.- Kontzertazio-hitzarmena **JENDAURREAN JARTZEA** hogeitun laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hogeitun laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2010eko martxoaren 8ko GAO, 44. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta inork ez dio alegaziorik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzailearen proposamenez eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluan eta Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- **BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. arearen —Dike— kontzertazio hitzarmena (2010eko martxoaren 8ko GAO, 44. zenbakia); hitzarmena Jose, Casilda eta Carmen Garate Tolosak eta Pedro Aiestaran Etxabek aurkeztu dute, Dike Berri, SL entitate merkantilaren izenean.



2.- **AHALMEN ZABALA EMATEA** Jon Redondo Lertxundi alkateari, kontzertazio-hitzarmena sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hauek interesatu guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsoen berri emanez.

4.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. HIRIGINTZA JARDUKETA GARATZEKO HITZARMEN URBANISTIKOA; HITZARMENA 'LURRA, PROMOCIÓN Y GESTIÓN SL' ENTITATE MERKANTILAK AURKEZTU DU UDALAREN AURREAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Udalbatzarrak, 2010eko urtarrilaren 26ko ohiko bilkuran, lehen onarpena eman zion Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoari (2010eko martxoaren 8ko GAO, 44. zenbakia); onarpen-erabakiak honela dio, hitzez hitz:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoari.

2.- Hitzarmen urbanistikoa **JENDAURREAN JARTZEA** hogeitun laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hogeitun laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2010eko martxoaren 8ko GAO, 44. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta inork ez dio alegaziorik aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzailearen proposamenez eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa betez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- **BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. Hirigintza Jarduketa garatzeko hitzarmen urbanistikoa; hitzarmena Lurra, Promoción y Gestión SL entitate merkantilak aurkeztu du Udalaren aurrean.

2.- **AHALMEN ZABALA EMATEA** Jon Redondo Lertxundi alkateari hitzarmen urbanistikoa hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.

3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hauek interesatu guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsoen berri emanez.



5.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— KIROL PISTAK EGITEKO PROIEKTUA” EXEKUTATZEKO OBREN KONTRATAZIOA, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, PRESAKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Orioko arau subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak egiteko proiektua exekutatzeko obren adjudikazioa lehiaketa bidez, prozedura irekiz eta urgentziazko tramitazioz egiteko iragarkia argitaratu zuen Udalak 2010eko apirilaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (65. zenbakia).

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, honako lehiatzaileak aurkeztu dira:

- 1.- CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA, S.L.
- 2.- CAMPEZO CONSTRUCCIÓN, S.A.U.
- 3.- MANUEL ECHAIDE, S.L.
- 4.- EXCAVACIONES FRESNEDA, S.L.
- 5.- CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A.
- 6.- EKOLAN OBRAS Y SERVICIOS, S.L. eta KAKUETA, S.L. aldi baterako enpresa-elkartea
- 7.- IC CONSTRUCCIÓN, INGENIERIA Y GESTION DE OBRAS, S.A. eta DC CONSTRUCCIÓN, INGENIERIA Y GESTION DE OBRAS, S.A. aldi baterako enpresa-elkartea

Kontratazio Mahaiak, udal idazkariak 2010eko maiatzaren 10ean emandako txostena aintzat hartuz, honako hau proposatzen du: Orioko 8. sektoreko —Munto— kirol pisten proiektua exekutatzeko obren kontratua CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA SL sozietate merkantilarari adjudikatzea, bere proposamena izan delako puntuaziorik altuena lortu duena Baldintza Administratibo Partikularren orriko 16. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**]:

- 1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2010eko apirilaren 30ean egindako plikak irekitzeko ekitaldia.



2.- **BEHIN-BEHINEKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko 8. sektoreko —Munto— kirol pisten proiektuaren obrak proiektu teknikoaren arabera exekutatzeko kontratua CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA SL sozietate merkantilari; obren adjudikazio prezioa 397.785,49 eurokoa da (BEZa, Gastu Orokorrak eta Mozkin Industrialak barne).

Behin-behineko adjudikazio hau **BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIO** bihurtuko da, behin adjudikaziodunak aurkezten duenean dagokion dokumentazioa, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala (17.145,93.- eurokoa) ematen duenean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen iragarkia argitaratu eta hamabost laneguneko epean.

3.- **ITZULTZEA** lehiaketa honetan parte hartu duten lehiatzaileek aurkeztutako behin-behineko fidantzak.

4.- **JAKINARAZTEA** erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsioak azalduz.

Talde mistoko zinegotzi Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela honako arrazoiagatik: guztiz bat datoz Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektorean —Munto— kirol pistak eraikitzearekin, baina Orioko Herri Ikastolak egindako ekarpenak ez dira kontuan hartu eta, gainera, ez dira bilera informatzaileak egin obraren arduradun teknikoaren eta obren enpresa adjudikaziodunaren artean.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du proiektua bere garaian diktaminatu zela dagokion batzorde informatzailean eta geroztik egin diren aldaketak txikiak direla.

6.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREKO —MUNTO— EXEKUZIO-UNITATEAREN BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUTIK ERATORRITAKO PR/1 PARTZELAREN PARTAIDETZA INDIBISOA (%21,1130) BESTERENTZEA, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Besterentzea lehiaketa publiko bidez egingo da, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioz. Lehiaketaren iragarkia 65. zenbakidun GAOn argitaratu zen, 2010eko apirilaren 12an.

Irekitako epean lehiatzaile bakarra aurkeztu da:

- DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SL

Kontratazio mahaiak proposatzen du Orioko Udal Planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-



proiektutik eratorritako PR/1 partzelaren partaidetza indibisioa (%21,1130) besterentzeko kontratua Aranegi jaunak ordezkatzeko duen DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SL entitate merkantilari adjudikatzea, klausula partikularren orriaren 12.4 artikulua araberako, berak aurkeztu duen eskaintza ekonomiko bakarra eta, beraz, onena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoa: Garcia (EB/B-A), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

1.- **BALIOZKOTZAT JOTZEA** 2010eko maiatzaren 6an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko Udal Planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorritako PR/1 partzelaren partaidetza indibisioa (%21,1130) besterentzeko kontratua Aranegi jaunak ordezkatzeko duen DESARROLLO Y EDIFICACIONES MENDIBIL SL entitate merkantilari; besterentzearen prezioa 1.190.000 eurokoa da (BEZa aparte), eta notario-gastuak eta erregistrokoak entitate adjudikaziodunaren kontura izango dira.

3.- **ARGITARATZEA** erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

4.- **AHALMEN ZABALA EMATEA** Jon Redondo Lertxundi alkateari, behar diren dokumentu pribatu zein publiko guztiak sinatzeko, Orioko Udalaren izenean, Orioko Udal Planeamendurako arau subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— exekuzio-unitatearen birpartzelazio-proiektutik eratorritako PR/1 partzelaren partaidetza indibisioa (%21,1130) besterentzeko; hori guztia, besterentzea dagokion jabetza erregistroan guztiz inskribatuta geratu arte.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL LURRAK (3.232,80 M2) DOAN LAGATZEA, JABARI PUBLIKO ITSAS-LEHORTARREAN SARTZEKO, HONAKO HELBURUAREKIN: INGURUMEN, LANDA ETA ITSAS INGURUNEN MINISTERIOAK EMAN DIEZAION ORIOKO UDALARI JABARI PUBLIKO ITSAS-LEHORTARREKO ONDASUNAK OKUPATZEKO BAIMENA ORIOKO ARRAUNEN ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO-ZENTROA HANDITU ETA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTURAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 13an egindako bilkuran emandako



diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/A), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburur (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA udal lurrak (3.232,80 m²) doan lagatzea, jabari publiko itsas-lehortarrean sartzeko, honako helburuarekin: Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurunekeo ministerioak eman diezaion Orioko Udalari jabari publiko itsas-lehortarreko ondasunak okupatzeko baimena Orioko Arrauneko eta Piraguismoko Teknifikazio-Zentroa handitu eta zaharberritzeko proiekturako.

Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko zinegotzi Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, kontuan hartuta zer nolako botere gutxi duten udalek horrelako erabakiak hartzeko; adierazten du, beren ustez, horrelako erabakiak hartu beharrak garbi adierazten duela zertarainokoa den estatuko administrazioaren inposizioaren indarra; azkenik, adierazten du, bihotzaren esanei segituz gero, baiezko botoa emango zutela, eta arrazoiaren esanei segituz gero, berriz, kontrako. Beraz, bi jarrera horien artean, azkenean, bere talde politikoak abstenitzea erabaki du.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ARDORA ANTILLA SL ENTITATE MERKANTILAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEAN ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 1. ZENBAKIDUN ERAIKINEAN BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK USTIATZEKO 2003KO EKAINAREN 1EAN SINATUTAKO KONTRATU ADMINISTRATIBOA DESEGITEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, 2003ko maiatzaren 6ko ohiko bilkuran, erabaki zuen aldatzea Orioko Udalaren eta Nicasio Uranga Garateren artean 1998ko ekainaren 22an sinatutako Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak emateko kontzesio administratiboaren kontratua. Hori guztia, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 101. artikuluan, Udalbatzen Kontratazio Erregelamenduaren 102. artikuluan eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez.

2003ko maiatzaren 6ko udalbatzar horretan erabakitakoari jarraiki, kontratu administratiboa sinatu zuen Udalak ARDORA ANTILLA SL entitate merkantileko ordezkari Nicasio Uranga Garaterekin, eta kontratu horren bigarren klausularen bukaeran honako hau dio, hitzez hitz: “el canon anual de explotación deberá estar ingresado en la Tesorería del Ayuntamiento de Orio, en su totalidad, antes del 30 de septiembre del año correspondiente”.



Udalbatzarrak, 2009ko urriaren 27ko ohiko bilkuran, erabaki zuen Orioko Antilla hondartzako 1., 2. eta 3. zenbakidun eraikinen kontzesio administratiboaren adjudikaziodunei Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko 2008ko eta 2009ko kanona %15 jaistea.

2009ko urriaren 27ko erabaki hori gauzatzeko, Udal Diru-bilketa Zerbitzuak bi zerga-likidazio egin zituen (Erref. 061550004794, 101. zenbakidun ordainagiria; eta Erref. 0615500005184, 1. zenbakidun ordainagiria) honako kopurua zutenak: lehendabizikoa 43.898,01 eurokoa zen (BEZ barne), eta bigarrena 50.934,56 eurokoa (BEZ barne); bi zerga-likidazio horien kontzeptua honako hau zen: Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2008ko eta 2009ko kanona; eta ordaintzeko ezarritako gehienezko epea 2009ko azaroaren 30a zen.

Nolanahi ere, 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboaren bigarren klausularen bukaeran ezarritakoa betetz, 2008ko kanona 2008ko irailaren 30erako behar zuen sartuta Udal Diruzaintzan, eta 2009ko kanona, berriz, 2009ko irailaren 30erako.

Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2008ko eta 2009ko kanonak ordaintzeko epeak eta baita azkena jarritakoa ere (2009ko azaroaren 30a) aspaldi pasa ziren eta, gaurko egunez, ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilak ez du Udal Diruzaintzan sartu inolako diru-kopururik; ondorioz, entitate merkantil horrek Udalarekin daukan zerga-zorra 94.832,57 eurokoa da (BEZ barne).

2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboaren zortzigarren klausulan ezarritakoaren arabera, kontratua desegiteko arrazoi izango da, besteak beste, honako hau (hitzez hitz): “el impago del canon (tanto el principal como el complementario en su caso) en plazo superior a dos meses y medio”; hala ere, arrazoi horregatik kontratua desegiteko, aldezturik jakinarazi behar zaio adjudikaziodunari arau-haustearen berri eta dagokion udal organoak epe bat jarri behar dio arau-haustea zuzentzeko; orduan egiten ez badu, desegin ahal izango da kontratua.

Aurreko guztiagatik, 2010eko otsailaren 18ko 122/2010 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez, Orioko Udalaren eta ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilaren artean 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboa desegiteko espedientea hasi zen, gorago azalduta bezala, entitate horrek, behin eta berriz, ez dituelako bere obligazio ekonomikoak bete; alkate-dekretu horren bidez, hamabost laneguneko epea eman zitzaion kontratuaren adjudikaziodunari, bere eskubideen defentsan nahi zituen alegazioak aurkezteko.

ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilaren izenean, Iñaki AGOTE IÑARRAK alegazioak aurkeztu ditu Udalaren aurrean (2010eko martxoaren 9ko idatzia, 381 sarrera-zenbakia duena); alegazio horietan ez die ezer berririk gehitzen espedientearen edukiei eta, beraz, alegazioek ez dituzte zalantzan jartzen Udalak



kontratu administratiboa desagiteko dauzkan arrazoi juridikoak: 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboaren zortzigarren klausulan ezarritakoa, alegia, kontratua desagiteko arrazoa izango dela, besteak beste, honako hau (hitzez hitz): “el impago del canon (tanto el principal como el complementario en su caso) en plazo superior a dos meses y medio”. Hau da: ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilak behin eta berriz huts egin ditu 2010eko otsailaren 18ko 122/2010 alkate-dekretuan adierazitako obligazio ekonomikoak, hemen berriro aipatuko ez ditugunak; eta obligazioak ez betetzeak ondorio jakinak ditu Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboan Orrian eta aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera.

Bukatzeko, ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilak, erabaki hau hartzeko egunean, 94.832,57 euroko zerga-zorra dauka Udal Diruzaintzarekin, Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2008ko eta 2009ko kanonak ez ordaintzeagatik.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, hasitako espediente administratiboan dauden aurrekariak ikusita eta 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboaren zortzigarren klausulan ezarritakoa eta hari dagokion Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboan Orrian ezarritakoa betez, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 13an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/A), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Orioko Udalak eta ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilak Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2003ko ekainaren 1ean sinatutako kontratu administratiboa desagitea, horrek dakartzan udal eskumen eta ondorio guztiekin: bereziki, kontratu administratibo horren klausuletatik eta Orioko Antillako hondartzako 1. zenbakidun eraikina okupatzeko lagapen administratiboaren kontratazioa arautzen duten baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboan orritik eratortzen direnak.

2.- Erabaki honek 2010eko irailaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak eta, beraz, kontuan hartuta Orioko Udalak baimena ematen duela Orioko Antillako hondartzako 1. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2010eko urtarrilaren 1etik irailaren 12ra bitartean, ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilak 2010eko kanonaren zati proportzionala ere sartu beharko du Udal Diruzaintzan; diru-sarrerara hori 2010eko irailaren 30a baino lehen egin beharko du.

Nolanahi ere, ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilak gehiago luzatu gabe sartu beharko du Orioko Udalarik zor dion 94.832,57 euroko (BEZ barne) diru-kopurua Udal Diruzaintzan; diru hori kobratzeko, ondare izaerako ohiko diru-sarrerara den aldetik, Orioko Udalak dagozkion ekintza administratiboak abiatuko ditu, diru-bilketa



exekutiboa erregulatzen duen araudian eta aplikagarriak diren gainerako lege eta arauetan ezarritakoaren anparoan.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINEAN BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK USTIATZEKO 2007KO APIRILAREN 11N SINATUTAKO KONTRATU ADMINISTRATIBOA DESEGITEA ETA, BERAZ, USTIAPEN-ESKUBIDEAK LAGATZEKO UDAL BAIMENA DEUSEZTATZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarrak, 2006ko abenduaren 26an egindako ohiko bilkuran, BAIMENA EMAN ZUEN Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, une hartan Berlosa jaunak ordezkatzeko zuten TXALUPA ORIO SL adjudikaziodunaren eskutan zeudenak, Xabier Urretabizkaia Lizarribarrek eta Jose Manuel de la Parra Arruabarrenak ordezkatzeko zuten MANDOEULIE SL sozietate merkantilaren eskutan lagatzeko, udalbatzarrak 1998ko otsailaren 20an egindako bilkuran onartutako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboaren Orrian ezarritakoaren arabera; erabaki horren arabera, zerbitzuak ustiatzeko eskubideen iraupen-epea 2018ko maiatzaren 30era artekoa da, gehienez.

Udalbatzarrak, 2008ko martxoaren 31n egindako ohiko bilkuran, BAIMENA EMAN ZUEN Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, une hartan Jose Manuel de la Parra Arruabarrenak ordezkatzeko zuten MANDOEULIE SL adjudikaziodunaren eskutan zeudenak, XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBARren eskutan lagatzeko, udalbatzarrak 1998ko otsailaren 20an egindako bilkuran onartutako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboaren Orrian ezarritakoaren arabera; erabaki horren arabera, zerbitzuak ustiatzeko eskubideen iraupen-epea 2018ko maiatzaren 30era artekoa da, gehienez.

Udalbatzarrak, 2009ko urriaren 27ko ohiko bilkuran, erabaki zuen Orioko Antilla hondartzako 1., 2. eta 3. zenbakidun eraikinen kontzesio administratiboaren adjudikaziodunei Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko 2008ko eta 2009ko kanona %15 jaitea.

Nolanahi ere, 2. zenbakidun eraikinaren okupazioaren adjudikaziodunak, Xabier Urretabizkaia Lizarribarrek, 38.299,60 euroko abala aurkeztu beharko du udal bulegoetan alde aurretik, kontzesio administratiboaren adjudikazioa dela-eta bere gain hartu zituen obligazioak bermatzeko; ez badu abal hori aurkezten, ez zaio aplikatuko %15eko jaitsiera 2008ko eta 2009ko ustiaketa-kanonetan.

2009ko urriaren 27ko erabaki hori gauzatzeko, Udal Diru-bilketa Zerbitzuak zerga-likidazio bat egin zuen (Erref. 0615500005256, 2. zenbakidun ordainagiria) 29.177,72 euroko (BEZ barne) kopurua zuena; zerga-likidazio horren kontzeptua



honako hau zen: Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2009ko kanona; eta ordaintzeko ezarritako gehienezko epea 2009ko azaroaren 30a zen; likidazioaren BALDINTZA zen 38.299,60 euroko aginduzko abala aurkeztea.

Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2009ko kanona ordaintzeko epea aspaldi pasa zen eta, gaurko egunez, XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBAREk ez du Udal Diruzaintzan sartu inolako diru-kopururik —ez 2009ko kanonari dagokion 29.177,72 euroko diru-kopurua eta ez 38.299,60 euroko abala—, nahiz eta behin eta berriz eskatu zaizkion.

2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboaren zortzigarren klausulan, j) atalean, ezarritakoaren arabera, kontratua desegiteko arrazoi izango da, besteak beste, honako hau (hitzez hitz): “el impago del canon (tanto el principal como el complementario en su caso) en plazo superior a dos meses y medio”; hala ere, arrazoi horregatik kontratua desegiteko, alde aurretik jakinarazi behar zaio adjudikaziodunari arau-haustearen berri eta dagokion udal organoak epe bat jarri behar dio arau-haustea zuzentzeko; orduan egiten ez badu, desegin ahal izango da kontratua.

Aurreko guztiagatik, 2010eko otsailaren 18ko 121/2010 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez, 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desegiteko espedientea hasi zen, gorago azalduta bezala, entitate horrek, behin eta berriz, ez dituelako bere obligazioak bete —ez ekonomikoak eta ez bestelakoak—; alkate-dekretu horren bidez, hamabost laneguneko epea eman zitzaion kontratuaren adjudikaziodunari, bere eskubideen defentsan nahi zituen alegazioak aurkezteko.

Udalbatzarrak, gorago esanda bezala, 2008ko martxoaren 31n egindako ohiko bilkuran, baimena eman zuen Orioko Antillako hondartzako 2. eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, une hartan Jose Manuel de la Parra Arruabarrenak ordezkatzan zuten MANDOEULIE SL adjudikaziodunak zeuzkanak, XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBARren eskuetan lagatzeko, udalbatzarrak 1998ko otsailaren 20an egindako bilkuran onartutako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orrian ezarritako baldintzen arabera; beraz, ustiapen-eskubideak entitate merkantil batetik (MANDOEULIE SL) pertsona fisiko batengana aldatzen direnez, Udalak ez du lege-obligaziorik MANDOEULIE SLren aldeko banku-abalari eusteko (entitate merkantilak abala itzultzea eska diezaioke Udalari, eta halaxe egin zuen, eta itzuli egin zitzaion); hortik ondorioztatzen da adjudikaziodun berria, XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBAR, behartuta dagoela legez 38.299,60 euroko abala aurkeztera udal bulegoetan, eskumenen adjudikazioarekin batera bere gain hartu dituen obligazioak bermatzeko.

XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBARrek idatzia aurkeztu dio Udalari (2010eko martxoaren 10eko data, 388. sarrera-zenbakia), 2009ko kanona ordaintzeko epea luzatzea eskatuz; Udalarentzat ez da aintzakotzat hartzekoa eskari hori: kanon hori ordaintzeko epea 2009ko irailaren 30ean bukatu zen, baina, gero, udalbatzarrak 2009ko urriaren 27an hartutako erabakia gauzatu, Udal Diru-bilketa Zerbitzuak



zerga-likidazio berria egin zuen (Erref. 0615500005256, 2. zenbakidun ordainagiria); 2009ko kanonari zegokion zerga-likidazio berriaren kopurua txikiagoa zen, 29.177,72 eurokoa, eta, hori ordaintzeko epea 2009ko azaroaren 30a bitartekoa zen; bai lehendabiziko epea, 2009ko irailaren 30ekoa, eta bai bigarrena, 2009ko azaroaren 30ekoa, aspaldi pasa ziren eta, gaurko egunez, XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBARrek ez du inolako diru-kopururik sartu Orioko Udal Diruzaintzan: ez 2009ko kanonari dagokion 29.177,72 euroko diru-kopurua (BEZ barne) eta EZTA ERE 38.299,60 euroko abala, nahiz eta behin eta berriz eskatu zaizkion.

Bukatzeko, azaldutako guztia ikusita, egokia da 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desegitea eta, beraz, indarrik gabe uztea Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak lagatzeko udal baimena, erabaki honen azalpenean adierazitako obligazioak —ekonomikoak eta bestelakoak— behin eta berriz huts egin direlako; horrek ondorioak izango ditu, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orrian eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, hasitako espediente administratiboan dauden aurrekariak ikusita eta 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboaren zortzigarren klausulan ezarritakoa eta hari dagokion Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orrian ezarritakoa betez, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 13an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/A), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2007ko apirilaren 11n sinatutako kontratu administratiboa desegitea, horrek dakartzan udal eskumen eta ondorio guztiekin: bereziki, kontratu administratibo horren klausuletatik eta Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko lagapen administratiboaren kontratazioa arautzen duten baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orritik eratoritzen direnak.

2.- Erabaki honek 2010eko irailaren 13tik aurrera izango ditu ondorioak eta, beraz, kontuan hartuta Orioko Udalak baimena ematen duela Orioko Antillako hondartzako 2. zenbakidun eraikinean baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko 2010eko urtarrilaren 1etik irailaren 12ra bitartean, XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBARrek 2010eko kanonaren zati proportzionala ere sartu beharko du Udal Diruzaintzan; diru-sarrerara hori 2010eko irailaren 30a baino lehen egin beharko du.

Nolanahi ere, XABIER URRETABIZKAIA LIZARRIBARrek gehiago luzatu gabe sartu beharko du Orioko Udalari zor dion 29.177,72 euroko (BEZ barne) diru-kopurua Udal



Diruzaintzan; diru hori kobratzeko, ondare izaerako ohiko diru-sarrera den aldetik, Oriko Udalak dagozkion ekintza administratiboak abiatuko ditu, diru-bilketa exekutiboa erregulatzen duen araudian eta aplikagarriak diren gainerako lege eta arauetan ezarritakoaren anparoen. Nolanahi ere, bestalde, 38.299,60 euroko aginduzko abala aurkeztu beharko du Udal Diruzaintzan, gehiago luzatu gabe.

10.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2010EKO AURREKONTU LUZATUARI DAGOKION 3/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 3/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du. Kreditu-aldaketa espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 234.995 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/A), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 3/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 234.995 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.



e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoa ez dagoela Udalari era batera zein bestera zerbitzuak eman dizkiotenei ordainsariak edota obra ziurtapenak ordaintzearen kontra, baina kasu guztietan egin behar dela hori eta, beraz, Orioko Herri Ikastolari ere ordaindu beharko litzaiokeela beren ustez zor zaiona.

11.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2010EKO AURREKONTU LUZATUARI DAGOKION 4/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 4/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du. Kreditu-aldaketa espedientearen kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 636.184 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/A), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 4/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 636.184 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedienteaz aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

12.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2010EKO AURREKONTU LUZATUARI DAGOKION 5/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 5/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du. Kreditu-aldaketa espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.475.215 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/A), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 5/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 1.475.215 euroko kopurua du; kopuru horren barruan dago, Gastuetako 6. kapituluaren (Inbertsioak), 1.0617.690.451.00.01 partida, 'Gaztediako inbertsioak' izenarekin eta 20.000 euroko diru-kopuruarekin.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza



b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteke aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeke arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteke bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3.- AHALMEN ZABALA EMATEA Orioko alkateari, Orioko San Nikolas elizaren ingurua urbanizatzeko obren II. fasea exekutatzeko behar diren ondasun eta eskubideak erosteko dagozkion salerosketako eskritura publikoak sinatzeko, Orioko Udalaren izenean, Jabetza Erregistroan guztiz inskribatuta geratzen diren arte.

Behar diren ondasun higiezinaren erosketaren prezioa, guztira, 219.813,53 eurokoa da.

Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko zinegotzi Leire Zinkunegik hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman duela hainbat aurrekontu-partida izendatu direlako: 15.000 euroko partida bat, udal kanpinari buruzko azterketa-lan bat egiteko; 45.000 euroko bat, Ibai Ondo kalean bidegorria egiteko; eta 20.000 eurokoa, gaztediari zuzendutako inbertsioak egiteko.

Eako zinegotzi Bixente Lasak hartzen du hitza eta poza agertzen du lortu den adostasunagatik; adierazten du, beraz, zorionak eman nahi dizkiela kreditu-aldaketa espedientearen aldeko botoa eman duten zinegotzi guztiei.

Azkenik, EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak hartzen du hitza eta adierazten du haserre dagoela 'oposizio' teorikoa hautsi egin delako bozketan (10 aldeko boto eta kontrako bakarra: berea); adierazten du, horrela, hautsi egin dela ezkerrean abiatutako biraketa eta hori oso tristea iruditzen zaiola berari; bukatzeko, zorionak ematen dizkio alkateari, bere ustez hura izan delako Udalaren 'oposizio' teoriko hori hautsi izana eragin duena.



13.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2010EKO AURREKONTU LUZATUARI DAGOKION 6/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 6/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du. Kreditu-aldaketa espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 41.500 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/A), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 6/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 41.500 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



14.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2010EKO AURREKONTU LUZATUARI DAGOKION 7/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. KREDITU ALDAKETA KREDITU TRANSFERENTZIAREN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 7/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du. Kreditu-aldaketa espedientea kreditu transferentziaren modalitatean egina dago eta 51.500 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko maiatzaren 19an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Garcia (EB-B/A), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 7/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 51.500 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko zinegotzi Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta adierazten du Orioko ikastetxeentzako hezkuntza alorreko diru-laguntzak, 6/2010 eta 7/2010 kreditua aldatzeko espedienteetan jasotzen direnak, eskolaz kanpoko jardueretarako direla eta ez kontserbazio eta mantenimendu gastuak finantzatzeko; adierazten du, gainera, bere ustez oso partida txikiak direla.

15.- PROPOSATZEA, EGOKI BADA, 2011KO ORIOKO JAIEGUNA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposamena da Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari proposatzea Orioko jaieguna 2011n ekainaren 29a izan dadin, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuperatu beharrik gabekoa.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

PROPOSATZEA Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari Orioko jaieguna 2011n ekainaren 29a izan dadin, San Pedro eguna; jaiegun hori baliogabea izango da lanerako, ordaindua eta errekuperatu beharrik gabekoa.

Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren maiatzaren 18ko 140/2010 Dekretuaren 2.2 artikuluan ezarritakoa betez; dekretu horrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko jaiegunen Egutegi Ofiziala onartzen du 2011. urterako.

Emandako botoa azaltzeko, EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak hartzen du hitza eta adierazten du abstentzio botoa eman duela uste duelako herritarren parte-hartzearen bitartez proposatu eta erabaki beharko litzatekeela Orioko jaieguna noiz egin. Hau da, bere ustez, Orioko herriak modu aktiboan parte hartu beharko luke jaieguna aukeratzeko.

16.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK EGINDAKO PROPOSAMENA, ALKATEAREN ETA ZINEGOTZI LIBERATUEN ORDAINSARIAK IZOZTEARI BURUZKOA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposamena hau da: alde batetik, alkatearen eta zinegotzi liberatuen soldatak izoztea 2009an indarrean zeuden kopurutan eta, bestetik, kontuan hartuta 2010eko soldaten gehikuntza %1,8koa izan dela, soldata 2010eko maiatzaren 1etik aurrera jaisteagatik sortzen den 1.175 euroko gutxi gorabeherako aurrezpena enplegu eta sustapen ekonomikoaren alorreko partidak finantzatzeko erabiltzea.

Talde mistoko zinegotzi Leire Zinkunegik hartzen du hitza eta adierazten du talde mistoko hiru zinegotziek egin zuten proposamen horrekin bat egin dutela EB-B/Aralar koalizioko Iturainek eta Garciak eta EAko Lasak.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du dagokion udal batzorde informatzailean eztabaidatuko dela soldataren murrizketatik sortutako aurrezpena (1.175 euro, gutxi gorabehera) nola erabili.

EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak hartzen du hitza eta alkateari gonbita egiten dio soldata %5 jaisteko.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

ONARTZEA alkatearen eta zinegotzi liberatuen ordainsariak izoztea; neurriak 2010eko maiatzaren 1etik aurrera izango du eragina eta ordainsariak 2009an indarrean zeuden kopurutan finkatuko dira.

Emandako botoa azaltzeko, EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Iturainek hartzen du hitza eta adierazten du bai aztergai-zerrendako 16. gai hau eta bai 10.enetik 14.era bitartekoak ere (3/2010, 4/2010, 5/2010, 6/2010 eta 7/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientei dagozkienak) luze eztabaidatu eta negoziatu direla Hazienda, Pertsonal eta Kalitate batzorde informatzailearen hainbat bilkuratan eta lortutako akordioa negoziatio luze horien fruitua dela.

17.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR KOALIZIOKO ZINEGOTZI IÑAKI GARCIA ARANBARRIK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ERREPIDEETAN EZARRI NAHI DIREN BIDESARI BERRIAK DIRELA-ETA, ETA EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIO ALTERNATIBOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak aurkeztutako mozioak honela dio, hitzez hitz:



ORIOKO UDALEKO ALKATEBURUARENTZAT

Idatzi honen bidez, EB-Berdeak udal-taldeak honako hauxe aurkezten dio udalbatzari, Udal Araudi Organikoko 46. artikulua kontuan hartuta:

GIPUZKOAKO ERREPIDEETAN EZARRI NAHI DITUZTEN BIDESARI BERRIEI BURUZKO MOZIOA

Uda baino lehen, aldundiak foru-araua onartu nahi du, errepideen txosteneko irizpenean oinarrituta Gipuzkoako lurraldean ezarriko diren bidesari berriak arautzeko.

Gipuzkoak egindako apustuaren arabera, edukiera handiko errepideak eraikitzeke jarduera bizi-bizia izan da nagusi. Hori dela eta, ingurumenaren gaineko eragin handiak sortu dira, eta Gipuzkoakoa bezain lurralde txikia barreraz zein zementuz bete dute. Horrez gain, zor handia sortu da.

Ezker Batua Berdeak-en ustez, beste mugikortasun-politika bat ezarri behar da, pertsonen zein merkantzien trafikoa bultzatzeko. Hain zuzen ere, garraibide iraunkorrek sustatu behar dira, tren eta garraio publiko kolektiboa, esaterako, eta errepide bidezko trafikoaren aldeko apustua utzi behar da alde batera.

Zentzu horretan, nabarmendu egin nahi dugu txosteneko ondorioen batekin ados gaudela:

“iragaitzako merkantzien trafikoak” Gipuzkoako edukiera handiko bide-azpiegiturak “artatzen lagundu behar du”, baina ez gainerakoak. Izan ere, pertsonen zein merkantzien errepide bidezko trafikoa eta errepide berrien eraikuntza sustatzen dira oraindik, oro har garraio publikoa bultzatu beharrean.

Gaur egungo mugikortasun-eredua aldatzeko, ‘sine qua non’ baldintza da edukiera handiko errepide berriak ez eraikitzeke konpromisoa hartzea eta fondo horiek garraio publikoa sustatzeko erabiltzea.

Lehen baldintzari dagokionez, txosteneko ondorioen arabera, ibilgailu arinentzako bidesariak errepide beni eta zaharretan ezarriko dira, betiere bertan obra handiak egiten badira. Hau da, ez zaie uko egingo ez Errepideen Plan Nagusiko hirugarren errailei ez errepide berriei.

Bigarren baldintzari dagokionez, txostenean adierazitakoaren arabera, bidesariaren zati bat bidaiarientzako beste garraibide publiko batzuk finantzatzeko erabiliko da, baina hasierako honako bi baldintza hauetan oinarritzen da: “Bidegi sozietate publikoaren oreka ekonomiko finantzarioari eta sozietatearen helburuari eustea” Nolanahi ere, argitu egin behar da Bidegi sozietatearen helburuaren arabera ez dagoela diru hori garraio publikorako erabiltzerik, errepideak eraikitzeke eta artatzeko baino ezin delako erabili.



Hartara, gure ustez, lehenengo baieztapena asmoen adierazpen hutsa da eta ez da gauzatuko.

Azaldutakoa kontuan hartuta, honako erabaki hau hartzea proposatzen zaio Orioko Udalbatzari:

Orioko Udala bidesari berrien ezarpenaren aurka dago, euren azalpenean ez delako zehazten zenbat erabiliko den garraio publikorako. Horrez gain, foru-aldundiak ez du inolako konpromisorik hartzen, errepide azkar berririk eta hirugarren errailik ez eraikitzeko.

Segidan, udalbatzarrak EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak, hitzez hitz, honela dio:

BIDESARIEI BURUZKO ERAKUNDE-ADIERAZPENARI EGINDAKO OSOKO ZUZENKETA, EAJ TALDEAK AURKEZTUA

Azken urteotan, Gipuzkoan tematu dira lurraldeko bide-azpiegituren sarea funtsean zabaltzen eta hobetzen, bereziki edukiera handiko bideena. Horrekin, «Gipuzkoako biribilgunea» deritzona osatu nahi da.

Horri esker, Gipuzkoan bide-azpiegituren sare benetan egokia izango dugu denbora luzerako, lurraldeko barne zirkulaziorako zein kanpo zirkulaziorako. Jarduera horrek amaiera emango dio gipuzkoarrek eta Gipuzkoako erakundeek luzaroan nahi eta eskatu izan duten anbizioari.

Asmo hori ezin izango zatekeen gauzatu Gipuzkoako Batzar Nagusiek beren urriaren 3ko 7/2002 Foru Arauan erabaki garrantzitsu bat hartu izan ez balute; hain zuzen, bide-azpiegituren finantzaketan erabiltzaileek parte hartzeko printzipioa ezartzen duen erabakia.

Erabaki hori oso egokia izan da eta, horri esker, aipatutako proiektuak gauzatu dira eta, horiekin, Gipuzkoako biribilgunea osatu da (ezinbestekoa, lurraldean era orekatuan jardun dadin). Baina ez hori bakarrik: erabakiak aukera eman du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuko baliabide garrantzitsuak libre uzteko eta, hortaz, lehentasunezkoztat jotzen diren beste helburu batzuetarako erabiltzeko.

Batzar Nagusiek hartutako erabaki horren beste ondorio bat da bide horietatik igarotzen diren ibilgailuak inplikatzeari beren zerbitzura jartzen den azpiegituraren finantzaketan. Gipuzkoak kokaleku estrategikoa du Atlantikoko ardatzean. Aukera bat da eta, hala izanik, erronka ere bada, gizartera onura ekar dezan. Hain zuzen ere, lurraldeko bertako mugikortasuna eta garapena eten edo eragotzi gabe jarduera horrek guztiak berekin dakarren zirkulazioa hartzeko ahalmenaren araberakoa da sarearen eta aipatutako ahaleginaren hedadura. Bateragarritasun-ariketa hori zaila da, eta baliabide ekonomiko ugari



ez-ezik, kudeaketa-neurriak ere behar dira; baliagarri diren azpiegituren erabilera optimizatu eta arrazionalizatuko duten kudeaketa-neurriak, zehazki.

Lurraldearen orekaren eta elkartasunaren ikuspegitik, beharrezko da pixkanaka zuzentzea «Gipuzkoako biribilgunea» deritzon horren barruan sortzen den desoreka, erabiltzaileek bidesarien bitartez finantzatzen dituzten bideen eta zergen bidez Gipuzkoako zergadunek finantzatzen dituzten bidesaririk gabeko bideen artean.

Gainera, Gipuzkoak lurraldean mugikortasuna dibertsifikatu behar du ikuspegi integraletik, intermodaletik eta ingurumenaren ikuspegitik. Horretarako, alde batetik, era iraunkorragoan erabili behar ditu garraio-azpiegiturak; eta, bestetik, errepidearekiko mendetasuna murriztu behar du, eta bestelako garraiobideak erabiltzera bultzatu, hala nola, tren.

Ikuspegi horretatik, edukiera handiko bideen sarea erabiltzeagatik kanonak ordaindu beharra ezartzeak balio behar du bestelako garraiobideetan egingo diren inbertsioak finantzatzeko. Era berean, bide horretatik lortuko den etekinaren zati batekin garraio publiko kolektiboa finantzatu beharko litzateke, bai eta fluxuak modu eraginkorrean arautu ere, oreka hobegoaren mesedetan eta bide nagusiak bete ez daitezen.

Horra hor zergatik proposatu zaion Orioko Udaleko Udalbatzari ondoko ERAKUNDE-ADIERAZPENA, eztabaida eta onar dezan:

Bakarra.- Gipuzkoako Batzar Nagusiei eskatzea jarrai dezatela Gipuzkoako bidesarearen kudeaketari buruzko eztabaida eta analisisia egiten, horretarako egindako txostenean onartutako ondorioen arabera.

EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak hartzen du hitza eta adierazten du EAJren mozio alternatiboaren kontrako botoa emango duela, ez datorrelako inolaz ere bat EAJk bide-azpiegituren gaian daraman politikarekin (Abiadura Handiko Trena, Pasaiaiko kanpoko kaiaren sarbidea, Supersur saihezbidea...).

PSE-EE-PSOeko zinegotzi Jesus Rodriguezek hartzen du hitza eta adierazten du komeni dela hainbat kontzeptu argitzea errepideetako ordainsariak direla-eta:

- Ordainsariak ez dira, berez, 'txarrak'; azken batean, bide-azpiegituretako obra guztiak diru publikoarekin finantzatzen dira.
- Ordainsariek errepideak kontserbatu eta mantentzeko gastuak finantzatzeko balio dute, eta ez da zuzena gastu horien finantzazioa erabiltzen ez dutenen bizkar geratzea.
- Beraz, berak defendatzen du ordainsari 'bigun' bat ezartzea errepideak erabiltzeagatik.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ) eta Del Hoyo (EAJ), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

ONARTZEA Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garcia Aranbarririk aurkeztutako Gipuzkoako errepideetan ezarri nahi diren ordainsari berriei buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezala.

Segidan, EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa bozkatzen da, honako emaitzarekin:

Aldeko botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziek, guztira **BOST ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoa ematen dute Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar) zinegotziek, guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Lasa (EA) zinegotziak abstentzio botoa ematen du, guztira **ABSTENTZIO BAT**.

Bozketan berdinketa gertatu denez (bost baiezko boto eta bost kontrako boto), Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 100.2 artikulua agintzen duen bezala, bigarren bozketa egiten da, emaitza bera duena (bost baiezko boto, bost kontrako boto eta abstentzio bat); beraz, alkateak bere kalitateko botoa erabiltzen ez duenez, EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa **MAHAI GAINEAN** geratzen da.

18.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR KOALIZIOKO ZINEGOTZI IÑAKI GARCIA ARANBARRIK AURKEZTUTAKO MOZIOA, FRANKISMOAREN BIKTIMEN DESAGERKETAK DIRELA-ETA, ETA EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIO ALTERNATIBOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garcia aurkeztutako mozioak honela dio, hitzez hitz:

Idatzi honen bidez, EB-Berdeak udal talde honako hauxe aurkezten dio udalbatzarrari,

Herritar askok biziki kezkatuta jarraitzen ari gara errepresio frankistak eragindako pertsonen desagerpenei buruzko ikerketa irekitzearen Baltasar



Garzon epailearen aurkako prebarikazio salaketak direla-eta Auzitegi Gorenaren jardueraren ondorioz sortzen ari den egoera.

Haserrea eta lotsa sortzen du herrialde honetako herritar askoren aurka frankismo garaian egindako delituak jazartzera bultzatu beharrean justizia egiten lagundu gura dutenen aurkako jazarpenak, sinestezina da Espainiako botere judizialak borroroei babes ematea, horien artean prozesu honetan auzijartzaile den Falange Española bera, eta beste behin ere frankismoko biktimak, benetako ahaztuak diktadura garaian eta baita trantsizioan ere, babesik gabe uztea.

Gure herrialdeko eskuin eta eskuin mutur ingurukoek, tramitera onartutako kereila kriminala jarri dutenek hain zuzen ere, bultzatutako jardun judizial hauek gure herrialdeko demokraziari eta justiziari pultsu onartezina dira, eta ez lukete izan beharko gure antolamendu juridikoaren eta ezta gure sistema judizialaren babesik.

Kasu honetan gertatzen ari dena ez da bakarrik epaile baten aurkako jarduera bat, honekin herritar guztiei esaten zaie ere herrialde honetan badirela gal eta pertsona ukitu ezinak, eta horien aurka jarduteak, oraindik gaur egun ere, ondorio larriak dituela.

Ez da harritzekoa mundu osoko hainbat eta hainbat demokrata eta giza eskubideen alorreko epaile-erakunde nazional eta nazioarteko asaldatuta sentitzea kanpaina hau ikusirik, eta gerra zibilean eta ondorengo errepresio frankistan egindako giza eskubide urraketari buruzko benetako ikerketa egiteko beharra erakutsi izana.

NBko Giza Eskubideen kontseiluak Estatu Espainiarrari gomendatu dio antolamendu juridikotik kentzeko azken puntuko benetako lege bezala funtzionatuz zigorgabetasun mekanismoak iraunarazten eta nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko hitzarmenak urratzen dituzten oztopoak.

Beraz, gaur egungo egoeraren arduradun dira bai egungo gobernua bai aurrekoak nazioarteko eskaerei entzungor egin eta frankismoaren krimenen zigorgabetasunarekin amaitzeko hartu beharreko neurriak ez hartzeagatik, eta zentzu horretan, beharrezkoa da 1977ko Amnistía legea aldatzea behartutako desagerpen delituen preskribaezintasuna argi lagatzeko eta bere osotasunean betetzeko Eskubide Zibil eta Politikoen nazioarteko ituna eta Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmena. Gobernuaren eta botere legegilearen erantzukizuna da nazioarteak eskatutako aldaketak onartzea, gizateriaren aurkako krimenak egin zituzten eskuin muturreko talde berberak demokrazia eta giza eskubideen errespetuari egindako mehatxuekin egun ematen ah diren ikuskizun lotsagarria Estatuak berriz eman ez dezan.

Horregatik guztiagatik Orioko udalari honako erabaki hauek harea proposatzen zaio:



ERABAKIAK

1. *Gobernuari eta Kongresuari eskatzea NBko giza eskubideen kontseiluak eskatutakoa betez, berehala onartu dezatela 1977ko Amnistiaren Legea aldatzea honako hauek bermatzeko:*

- *Behartutako desagerpen delitua preskribaezina izatea.*

- *Epaitegiek Nazioarteko Zuzenbidearen aurkako krimenetan atzeraeraginezko preskribaezintasuna aplikatu ahal izateko bermea, eta horrela martxan jarri ahal izan 1936ko uztailleko estatu koipe faxistaren egileek eta ondorengo diktadurak egindako gizateriaren aurkako krimenei buruz dagozkion ikerketa judizialak.*

- *Behartutako desagerpenen kasuetan eta nazioarteko beste krimen edo delituetan inmunitaterik edo amnistiarik aplikatu ez dadin bermatzea.*

2. *Espainiako Gobernuari eskatzea botere judizialarekin batera eta Fiskaltza Nagusiaren laguntzarekin gerra zibilean eta ondorengo errepresio frankistan ízandako giza eskubideen aurkako urraketei buruzko Egiaren Batzorde bat eratu dezala gertaera horietako bíktimak identifikatu eta bílatzeko eta urraketa horien arduradunak zeintzuk izan ziren esateko.*

3. *Behartutako desagerpen delitua Zigor Kodean jasotzea (“nazioarteko erkidegoaren aurkako delituak” tituluari) eta nazioarteko zuzenbidearen arabera definitzea.*

4. *Auzitegi Gorenari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eskatzea nazioarteko eskaerei erantzunez bete ditzatela Estatu guztiek giza eskubide urraketa oro modu zehatz eta inpartzian ikertzeko, gertakariak ezartzeko, erantzukizun mailak zehazteko eta biktimei ordaintzeko duten nazioarteko betebeharra; eta horretarako, estatuko legeak nazioarteko zuzenbidearekiko bat etorrita ínterpretatzea zigorgabetasuna betikitzen duten barne oztopoak ezabatzeko.*

Mozioaren berri honako hauei ematea:

- *Nazio Batuetako Idazkari Nagusiari*

- *Espainiako Gobernuako presidenteari*

- *Diputatuen Kongresuko presidenteari*

- *Senatuko presidenteari*

- *Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko presidenteari.*



Segidan, Udalbatzarrak EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak, hitzez hitz, honela dio:

Auzitegi Nagusiak prebarikazio-salaketak egin ditu Garzon epailearen aurka, errepresio frankistak eragin zituen pertsonen desagerketei buruzko ikerketak irekitzeagatik; hori dela eta, EAJko zinegotzi-taldeak mozio hau proposatzen du, eztabaidatu eta onartzeko:

MOZIOA

- 1. Orioko udalbatzarrak, benetako Estatu demokratiko eta zuzenbidezko bati berez dagokion botere-bereizketa printzipioari erabateko errespetua azalduz, adierazten du konpromisoa agertzen duela Botere Judizialeko estamentu guztien independentzia gordetzearekiko eta gauza bera egitera deitzen dituela gure bizitza publiko eta sozialean eragina duten eragileak.*
- 2. Hori dela eta, kezkarria iruditzen zaizkigu eskuin muturreko alderdi eta erakundeek egindako maniobrak, Botere Judiziala beren interesen eta asmo desestabilizatzaileen zerbitzuko tresna egiten saiatzeko. Talde horiek Zuzenbidera jotzen dute azken urteotan eta bereziki larri eta esanguratsua da Euskadin egin dutena (gogoratu, esate baterako, Egunkaria auzia edota Atutxa-Knör-Bilbao edo Ibarretxe auziak); egoera muturrera iritsi da eta nahitaezkoa da serio hausnartzea prozedura judizialaren hainbat alderdiri buruz: esate baterako, sistema judizial demokratikoaren lorpen handienetako baten, salaketa popularraren, erabilera gaiztoa.*
- 3. Orioko Udalak berretsi egiten du aurrez hartutako erabakia, gaian eskumena duten botere publiko guztiei eskatzeko Memoriaren politika bat eraikitzea bideratutako ekintzak indar ditzaten; politika horren oinarriak hauek izan behar dute: historiaren ezagutza, Gerra Zibila eta Francoren diktadura sufritu zutenen duintasuna eta memoria berreskuratzea eta printzipio demokratikoen defentsa.*
- 4. Orioko Udalak balioa ematen dio, zentzu horretan, 1977ko Amnistiaren Legeak bere testuinguru historikoan ekarri zuen itun politikoa; baina lege hori ezin da erabili ezkutu gisa nazioarteko zuzenbidearen eta Espainiako estatuak sinatutako nazioarteko itunen arabera zigorgarriak diren krimenak zigorgabe uzteko.*

EB-B/Aralar koalizioko Iñaki Iturain zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bera Aralar alderdi politikoaren ordezkaria dela EB-B/Aralar koalizioan eta berak ere mozio alternatibo bat onartzea proposatu nahi diola udalbatzarrari; mozioak, hitzez hitz, honela dio:

GARZON ETA MEMORIA HISTORIKOARI BURUZKO MOZIOA



Gure ustez, Garzon epailea babesteko ekimenak, estatuko judikaturako goi mailetan izaten ari den auzian epaileari babesa emateko eginak, Garzon epaileak egindakoak ikuspegi laburrez begiratuta antolatutako ekimenak dira.

Falange edo Manos Limpias bezalako talde faxistei judikaturak ematen dien garrantziarekin ez gaude inolaz ere ados, edozeinekin borrokatzen dutelako helburu argi batekin: memoria historikoaren berreskuratzeari eta frankismoak hildako gorpuak ateratzeari oztopoak ipintzea. Frankismo garaian buruturiko krimenak lege internazionalen baitan epaituak izatea babesten dugu eta biktimei dagokien oroitzearen duina eskaintzea.

Frankismo garaian egindako krimenak ikertu nahi izateagatik Garzon epailea bezalakoak betirako bere lanbidetik kendu nahi izateak agerian uzten du epaileen gobernua edozertarako gai dela eta Judikaturaren barruan frankismoaren oinordekoak daudela eta, beraz, trantsizio demokratikoa egin gabe dagoela.

Baina, Baltasar Garzon epaileak frankismoko krimenak eta bestelakoak ikertu nahi izateak ezin digu ahaztarazi epaile honek Euskal Herriarekin zerikusia duten beste hainbat jardueratan izan duen jarrera. Bere jarduerak normalizazio politikoa eta herritarren eskubide eta askatasun politikoei eraso egin diete behin eta berriro.

Euskal gatazkarekin zerikusia duten jarduera horiek zerrendatzea ez da beharrezkoa. Jarduera horiek ez dira beti izan indarkeriazko jarrera edo jarduera zutenen kontrakoak; sarri askotan jarduera politikoan aritzen direnen kontra egin du Garzonek. Horrenbestez, bere epaile lanaren aurrean oso jarrera kritikoa daukagu, eta hori izan da, hain zuzen, epaile izar bihurtu duena.

Batasuneko Mahai Nazionalaren kontrako azken auzi-bidea horren adierazgarri dugu: 372 urte eskatzen dituzte Batasuneko kide horientzat, eta ez dugu ahaztu behar Garzon epailea bera izan zela horren guztiaren sustatzailea.

Honen guztiaren atzean dagoena izaera bereziko epaitegi bat eta epaileak egoteren da; botere eta inmunitate osoa dute nahi duten guztia egiteko, eta askotan, presio politikoarengatik egiten dute bere jarduera. Audientzia Nazionala da legearen aurrean ezberdin egiten gaituena eta Espainiako demokrazia beste batzuekin parekatzen uzten ez duena.

Ondorioz, adosten dugu:

1.- Epaitegi bereziak deuseztatzea eskatzen dugu, bereziki Audientzia Nazionala, eta auzi guztiak ohiko epaitegien bitartez epaituak izatea, baita, memoria historikoari dagozkionak ere.

2.- Terrorismoaren aurkakoa deritzon legediaren indargabetzea, bere adierazpen guztietan.



3.- Giza Eskubideen Legediaren eta Jurisprudentzia internazionalaren baitan, altxamendua eta Francoren erregimena genozidioa izan ziren eta horrela izaten jarraitzen dute, beraz, ez dira preskribitu, ardurak ezin dira salbuetsi eta ezin dira amnistiaren legearen baitan epaitu. Ondorioz, genozidio horren biktimen oroimena konpondu dadin eta biktimen gorpuak berreskuratzeko, identifikatzeko eta biktima izaera duintzeko eman daitezkeen pausuak bideratzeko, sinatzen dugu.

EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak hartzen du hitza eta adierazten du akats bat dagoela EAJren mozio alternatiboan, herri honetan trantsizio bat egin baitzen eta ez haustura demokratiko bat; bere ustez, haustura demokratikoa egin izan balitz, hobeto biziko ginateke, seguruena.

PSE-EE-PSOeko zinegotzi Jesus Rodriguezek hartzen du hitza eta adierazten du EAJren mozio alternatiboa neurrikoa eta 'diplomatikoa' dela eta ez dela ahaztu behar 1979tik 1982ra bitartean, Euskadin, UCD (Unión de Centro Democrático) alderdi politikoak babes sozial handia zeukala. Adierazten du, baita ere, 1977ko Amnistiaren Legeak balio izan zuela preso asko kartzelatik ateratzeko —haien artean, ETAko guztiak— eta ez dela ahaztu behar Baltasar Garzon epaileak ez duela inoiz asmorik izan Nurembergoaren erako epaiketa sumarisimoak egiteko.

Talde mistoko Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du 1977ko Amnistiaren Legea herriak lortu zuela eta gaur egun ETAko 750 preso ditugula; trantsizioan ez zela haustura demokratikorik egin, militarrek agintean segitzen baitzuten eta haien ezarri baitzituzten mugak; adierazten du, baita ere, hemen ez zela gerra zibilik izan, baizik eta altxamendu faxista bat; eta gehitzen du ez dagoela, inolaz ere, konparatzerik Atutxa-Knorr-Bilbaori edota Ibarretxeri egindako epaiketak eta ETAko presoek egindakoak, torturatu eta gero; azkenik, adierazten du bi aldeetan daudela hildakoak eta sufrimendua.

Azkenik, EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak hartzen du hitza eta adierazten du ez duela ulertzen nola herri honetan, hirurogeita hamar urte pasa eta gero, ez diren epaitu gizateriaren aurkako delituak egin zituztenak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garcia Aranbarrik aurkeztutako frankismoaren biktimen desagertari buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezala.

Udalbatzarrak, bestalde, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del



Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/A) eta Lasa (EA), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Udalbatzarrak, azkenik, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Garcia (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Iturainek Aralar alderdi politikoko ordezkari den aldetik aurkeztutako mozio alternatiboa.

19.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ERRAUSTEGIAREN KONTRAKO TALDEAK AURKEZTUTAKO ETA TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI, EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR KOALIZIOKO IÑAKI ITURAIN ETA IÑAKI GARCIA ETA EAKO BIXENTE LASA ZINEGOTZIEK BABESTUTAKO MOZIOA, USURBILGO ITUNAREKIN BAT EGITEA ESKATZEN DUENA, ETA EAJ TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIO ALTERNATIBOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

Urriko Udalbatzarrean, Orion sortutako hondakinak ez direla erraustera bideratuko onartu zen, baita Gipuzkoako Diputazioari errauste plantarik gure udalerrian ez genduela nahi eta beste herrietan hain zuzen Zubietan ez egiteko eskatzea onartu zen. Hau horrela eta ikusirik Zubietan erraustegia egiteko lanak martxan daudela, Orioko udalbatzarrak usurbilgo Itunarekin bat egitea nahi genuke:

Usurbilgo ituna

Hondakinen kudeaketa ereduaren norabidea une itxaropentsuan dago Gipuzkoan, Usurbil atez ateko bilketak bide berria zabaldu duelako, besteak beste. Eztabaida soziala eta instituzionala ere oraintxe gorpuztu dira.

Horregatik, itun hau sinatzen dugun eragile sozial eta politikoek honako hau adierazi nahi diegu gipuzkoarrei:

1. Gipuzkoarron osasuna da lehenesten dugun irizpidea gaiaren aterabidea zedarritzeko, beste edozein irizpideren gainetik. Osasuna lehenesteak, ordea,



ez du esan nahi gainerako irizpideak kontutan hartzen ez ditugunik, hala nola, ingurumena, ekonomia, lanpostuak.

2. Bat egiten dugu zabortegeiak gainditzeko konpromisoan, legek eta zuzentarauek ondo jasotzen duten bezala.

3. Bat egiten dugu errausketa gure asmo eta ekinbideetatik baztertzeko, eta hondakinen kudeaketa beste balore, teknologia eta prozedura batzuen bidez bideratzeko.

4. Bat egiten dugu Gipuzkoa osorako "zero zabor" programa zabala ezarri eta garatzeko beharrean. Gipuzkoarako «zero zabor» programak modu egokian eta nahikoan konbinatu beharko ditu bilketa selektibo onena eta konpostajea, bi alderdi hauek osatzen baitute hondakinen arazoa konpontzeko soluziobideen ardatza, Horrek esan nahi du konpostaje-azpiegitura egokia antolatu behar dela.

5. Zentzu horretan, ontzat jotzen ditugu organikoa ahalik eta gehien jasotzen duten sistemak, nabarmenduz Usurbilgo herrian ezarri den (eta Oiartzun eta Hernanin ezartzen ari diren) atez ateko sistema lau arrazoi nagusi hauengatik:

- Sistemarik eraginkorrena da: bilketa selektiboa %85era iristen da, eta inpropioen kopurua marginala da. Ondorizo konpostaren kalitatea ere ezinhobe da.

Emaitzak berehalakoak dira: Usurbil % 76ra iritsi zen lehenengo 4 asteetan.

- Hondakinen gaikako bilketa-sistema merkeena da.

- Lanpostuak sortzen ditu. Gipuzkoan 477 lanpostu berri sortuko lituzke, egungo lanpostuez gain.

6. Ondorioz Gipuzkoako Diputazioari eskatzen diogu 6 urteko geldialdia ezar diezaiola Zubietako errauste plantari. 6 urte horietan "zero waste" programa ezarri beharko luke, herri bakoitzera egokitutako gaikako bilketarako sistemarik onena eta konpostajea konbinatuta. 6 urte denbora-tarte nahikoa da hondakinak errausketarik gabe kudeatzeko gai ote garen ebaluatzeko.

7. Eskatzen diogu, era berean, baliatu dezala aukera hau Gipuzkoa berrikuntzaren bidean tematzeko, orain arte bezala aitzindari izan dadin. Ez dago gipuzkoarron kemena eta eskuzabaltasuna ordezkatu duen teknologiarik, are gutxiago haien osasuna kaltetzen badu. 6 urteko geldialdia besterik ez dugu eskatzen. Eman diezaiogun aukera bat Gipuzkoari.

Donostian, 2010eko martxoaren 12an

SINATZAILEAK



Alternatiba. Duñike Arrizabalaga

Ezker abertzalea. Iñaki Errazkin

Ezker Batua. Antton Karrera

Berdeak. Alberto Lejardi

Aralar. Rebeka Ubera

Hiru. Esteban Muruamendiaraz

LAB. Urtzi Ostolozaga

CCOO. Jesus Uzkudun

ELA. Ainhara Plazaola

EHNE. Eneritz Otamendi

EILAS. Kamino Sainz

ESK. Kepa Oiz

Eguzki. Arantxa de Ocio

Greenpeace. Igor Gorriño

Ekologistak Martxan. Pilar Barquin

Errausketaren Aurkako Koordinadora. Maria Luisa Sanchez

Usurbilgo alkatea. Xabier Mikel Errekondo

Egoera eta gaiaren larritasuna ikusirik, aurtengo ingurumenaren nazioarteko eguna (ekainak 5) hondakinen kudeaketa egokien alde, errausketarik behar ez dugulako hainbat ekintza antolatu ditugu eta bertan parte hartzera deitu nahi dizuegu bai Udalari eta baita herritarrei ere.

Aste Berdea: Ekainak 5 Ingurumenaren nazioarteko eguna

Errausketarik ez dugu behar, Orion Zero Zabor!

- Maiatzak 31tik Ekainak 6rarte hondakinen zirkuito integralaren erakusketa.

- Ekainak 6 Igandea, Errausketarik Ez, Orion Zero Zabor Eguna

Goizean "Lurretik lurrera" baratza eta konpostaje tailerra.



11:00etan Hamaiketakoa eta Bertziklapen tailerra. Herrio natur taldearen eskutik.

Arratsaldean ipuin kontalaria.

Iluntzean bideo emanaldia.

Hamaiketakoa 12:00etan izango omen da, eta ez 11:00etan.

Segidan, udalbatzarrak EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboaren berri jakiten du. Mozio alternatiboak honela dio, hitzez hitz:

Gipuzkoa trantsizio gara batean dago hondakinen kudeaketari dagokionez. Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren Aurrerapen Dokumentuak, Batzar Nagusietan 7/2008 Foru Arau gisa gehiengo handiz onarturikoak, helburu handinahi batzuk ezartzen ditu hondakinen kudeaketaren arloan. Hondakinak Kudeatzeko Europako Esparru Zuzentarauan ezarritakoarekin bat, prebentzio, birziklatze eta konpostatzearen alde egiten du, bai eta balorizazio energetikoaren alde ere, hondakinen kudeaketa ixteko sistema gisa errausketa hartuta. Horri guztiari esker aurreikusitako azpiegiturak amaitzean, hiri hondakinen Gipuzkoako zabortegeak itxi ahalko ditugu.

Berriki onartutako plangintzan ezarritakoarekin bat, hondakinen gaikako bilketa sustatu behar dugu, gai organikoaren gaikako bilketa ere, jakina, kontutan hartuta.

Alde horretatik, Gipuzkoan gai organikoa gaika biltzeko hainbat esperientzia pilotu jarri dira abian oraindik orain. Alde batetik, atez ateko bilketa Usurbilen, eta, bestetik, 5. edukiontzia bidezko bilketa Donostian (Amara auzoan), Zarautzen, Zumaian, Azpeitian, Azkoitian eta Aretxabaletan.

Bi bilketa sistemak elkarren kontrakoak dira, baina, bildutako hondakinen kalitateari dagokionez, emaitzak oso antzekoak dira bietan. Dena dela, nabarmendu behar da atez ateko sistema zurrana, nahitaezkoa eta zorrotza dela egutegi eta ordutegi aldetik.

Honi guztiari zera gehitu behar zaio: Orioko Udalak gaikako bilketaren eskuduntza Urola Kostako Udal Elkarteari utzia diola eta gaiaren analisia eta eztabaida Udal Elkartearen baitan egin beharra dagoela.

Horregatik guztiagatik, hauxe da Udalaren osoko bilkuran onartzeko aurkeztu dugun

MOZIOA



Urola Kostako Udal Elkartean 5. edukiontzi pertsonalizatuaren alde egitearen analisia eta eztabaida egin dadila, gai organikoaren gaikako bilketa kalitatez, garbitasunez eta askatasunez egin dadin sustatzeko.

EB-B/Aralar koalizioko zinegotzi Iñaki Garciak hartzen du hitza eta adierazten du EAJk aurkeztutako mozio alternatiboaren kontrako botoa emango duela, ez delako errespetatu herritarren borondatea (jasotako 35.000 sinaduren bidez adierazia), eta bera Donostiako Zubieta auzoko lurretan errauste-planta bat instalatzearen kontra dagoelako.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Orioko erraustegiaren kontrako taldeak aurkeztutako mozioa, Usurbilgo Itunarekin bat egitea eskatzen duena, goian jasota dagoen bezala.

Udalbatzarrak, bestalde, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

EZ ONARTZEA EAJ talde politikoak aurkeztutako mozio alternatiboa, goian jasota dagoena.

20.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOEN DEFENTSAN ETA APARTHEID-AREN KONTRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

Azken udal hauteskundeen hirugarren urteurrenera iritsi garai eta udal hau jakitun da herritar guztien bozkek ez dutela dagokien lekua instituzioetan. Jabeturik egoera horren bidegabekeriaz, udal honi honako mozioa hau aurkezten zaio onartu dezan.

-Udal honek indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea dutela aldarrikatzen du.



-Udal orok herritarren borondatea behar dute oinarri. Hortaz, Udal honek, herritarren borondatearen aurkako lege, epai edo erabakiei ez die inolako zilegitasunik aitortzen.

-Udal honek, herritarrek hautaturiko zinegotziak eta parlamentariak, eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen ditu.

-Udal honek herritarrek aukeraturiko indar politiko guztiek parte hartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko konpromisoak hartuko ditu.

-Mozio honen bitartez onaturikoa, herritarrei zein komunika bideei jakinaraziko die.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ) eta Del Hoyo (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, eskubide zibilen defentsan eta apartheidaren kontra, goian jasota dagoen bezala.

21.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Aztergai-zerrendatik kanpo eta alde zuzenetik udalbatzarkideen gehiengoak urgentziazkotzat jo ondoren (sei aldeko boto, lau abstentzio eta kontrako boto bat), udalbatzarrak honako erabakia **HARTU DU**:

22.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TALDE MISTOKO KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTU DUTEN MOZIOA, "ESKUBIDE GUZTIEN JABE, EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!" IZENBURUA DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak honela dio, hitzez hitz:

Espainiar eta Frantziar estatuak, euskal preso politikoaren aurka zuzendutako espetxe politika berezi eta baztertzaila ezarri dute azken 31 urte hauetan. Euskal Preso Politikoaren Kolektiboa errepresio estrategiaren lehen planoan



kokatu dute. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa ezabatu nahi dute eta horretarako eskura dituzten tresna errepresibo guztiak erabiltzen dituzte.

Egun, 750 preso politiko inguru daude espetxean, muturreko egoerei aurre egin beharrean aurkitzen direlarik. Eskualde honetan, 19 preso daude milaka kilometrotara sakabanatuta eta beraien oinarrizko eskubide urraketari aurre eginez bizi dira; besteak beste, isolamendua, bakartzeak, mehatxuak, jipoiak, bisita eskubidea mugatua, ikasteko zangotrabak etab. luze bat. Euskal Presoak hil arterainoko espetxealdira kondenatzen dituzte. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten 6 preso politiko espetxean mantentzen dituzte. Dotrina berrien asmakizunak bahatuz, bizi arteko espetxe zigorra ezartzen zaie; horien artean aurkitzen direlarik, Jose M8 Perez zarauztarra, Maritxu Uzkuadun erreizidarra, Juan Karlos Arruti azpeitiarra eta Juan M^a Igarataundi zestoarra. Guztiak ere, ezarritako zigorra bete izan arren, espetxean bahiturik dituzte.

Era berean, euskal presoek aurkako erasoek soka luzeak gure herrietako bazterrak ere astindu ditu. Hor kokatzen ditugu, azken urteetan, preso politikoen aldeko elkartasuna kriminalizatu eta zigortzeko saiakerak, mobilizazioen debekuak, argazkien sorgin ehiza eta nola ez, 4. aldiz eskualdean burutzeko asmoa zegoen eta 380 eragile sozial, sindikal eta politiko, elkarte eta talderen babesa jaso duen Pausoz Pauso ekimenaren debekua bera.

Milaka dira, presoek eskubideen alde bat egiten duten herritarrak. Milaka, herriz herri eta auzoz auzo beraien eskubideen alde lanean ari direnak. Eskualdean ere, ehunaka lagun bildu ohi dira euskal presoek eskubideen alde. Eta horixe da hain zuzen ere, Pausoz Pauso ekimena debekatzerakoan isilarazi nahi izan dutena.

Egoera honen aurrean, udal honek honako adierazpenarekin bat egiten du:

- Indarrean dagoen espetxe politikaren ondorioz, presoek oinarrizko eskubideak urratuak dira. Ondorioz, Euskal Preso guztiak, beraien eskubideen jabe, euskal herritarrak izan daitezkeen eskatzen dugu.*
- Era berean, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta zigorra beteta dutenak berehala aska ditzatela eskatzen diogu gobernu espainolari.*
- Udal honek, ehunaka herritarrek eta taldek babesturiko Pausoz Pauso ekimena debekatu izana salatzen du, presoek aldeko elkartasuna eta babesa ez baitira delitu. Apirilaren 24ean burutu behar zen ekimen honen debekuari erantzunez, ekainaren 5ean, eguerdiko 12etan “ eskubide guztien jabe, euskal presoak euskal herrira” lemapean herri guztietan burutuko diren elkarretaratzeak babesten ditu.*

Adierazpen honen berri, herritarrei bando bidez eta hedabideei helaraztea.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genova (EAJ) eta Del Hoyo (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**; kontrako botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

ONARTZEA talde mistoko Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztu duten mozioa, 'Eskubide guztien jabe, euskal presoak Euskal Herrira' izenburua duena, goian jasota dagoen bezala.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,